anboto

DURANGALDEKO ASTEKARIA
2017ko martxoaren 17a
15. urtea
669. alea
www.anboto.org
TOKIKOM

## Kultura

‘Drag-E’ antzezlan multimedia estreinatuko du Elorrioko Logela Multimediak, domekan, Bilboko Loraldia jaialdian. > 11



# Sahara bihotzean: sentitu, pentsatu eta ekin

Durangaldean saharar herriarekiko dagoen elkartasun mugimendua apartekoa da. Lan boluntarioan dabiltzan elkarteetako kideek udan umeak etxean hartzeko deia egin dute. > 2-3



## Goi tentsioko lineak ingurumena eta osasuna kaltetuko dituela kritikatu dute

Espainiar gobernuak Gueñes-Itsaso goi tentsioko linea elektrikoa ezarri gura du 2018an. 26 herritatik pasatuko da, tartean Durangaldetik. EHNEk, Eguzkik eta hainbat udalek ez dute begi onez ikusten. Linea sortzeko motiboa “enpresa elektriko handiek negozioak mantentzea eta argindarraren fakturak igotzen jarraitzea” dela uste dute. > 9

## *“Picassok egindako bi grabatu ekarriko ditugu; ez da halako mailako erakusketarik egin”*



**Garazi Arrizabalaga** | Museoko arduraduna > 10




**Durango** > 6
Fraile hurbiltzeko eskaera ez du tramitera onartu Konstituzionalak

**Zornotza** > 7
Felipe VI.a erregea Velatia enpresa bisitatzen egon da

**Durangaldea** > 8
Trenaren tarifa berrien kontrako protestak Berrizen eta Zaldibarren

**Elorrio** > 6
Bizkaiko Gurutze Gorriak lokala zabaldu du Elorrion

Herririk herri

# "Durangaldeko jendeak erantzun egiten duela ikustea aberasgarria da"

## Herria elkarteak ipinitako hazia Lajwad, Rio de Oro eta Hamadako Izarrak ari dira ureztatzen



Ezkerretik hasita, Garazi Etxebarria, Periko Arevalo, Maku Florentino eta Mikel Del Arco Durangoko Herria taberna parean.

**ERREPORTAJEA** M. Onaindia

Sahararekiko elkartasun itzela erakusten duen eskualdea da Durangaldea. Azken urteetan ume sahararren harrera familia kopuruak behera egin duen arren, laguntzen jarraitzeko alternatibak topatu dituzten elkarteak jaio dira, eta horrela, herritarren borondatezko lanaren loraldia bizi da. Herria elkarteak ipinitako lehen hazia Lajwad, Rio De Oro eta Hamadako Izarrak elkarteek ureztatu dute gerora. Sahara bihotzean dute.

Euskal Herritik Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamentuetarantz irtendako elikagaien zazpi kamioietako bat Durangaldekoa izatea da elkartasunaren erakusleetako bat. Duela hamalau urte hasi ziren ekimenagaz Durangoko Herriakoak, urtero milaka elikagai batuz, eta borondatezko lan horretan errelebo baten beharra sentitu dute. "Ilusioa amatatzen zihoan urteak pasa ahala. Rio de Orokoek beste espiritu eta gogo bategaz hartuko dute, eta pozik gaude", dio Periko Arevalok.

### Ia 100 lagun txandaka

"Erronka bat da Herriaren lanagaz jarraitzea", uste du Rio de Oroko Mikel Del Arcok. Karabana solidarioaz gainera, Oporrak Bakean programa ere bere gain hartuko du azken lau udatan kanpamentu bat antolatu izan duen taldeak. Aniztasun funtzionala duten umeei udan etortzeko aukera bat eman gura zieten, ohiko programekin ezin dutelako irten handik. Adimen desgaitasunak izaten dituzte, bestelakoen artean. "Abenduan joaten gara, aniztasun funtzionaleko eskoletan beharrizanik handiena duten umeak ezagutzera, gero, udan ekartzeko".

> Del Arco: "Eurek guk baino ekarpen handiagoa egiten dutela esango nuke. Magia bat sortzen da"

> Florentino: "Hamabi bat bidaia egin ditut hara, eta ikasten jarraitzen dut"

Aurten hamaika ume etorriko dira Izurtzan muntatzen duten udalekura; zazpi berriak izango dira eta lauk errepikatu egingo dute. "Eurek guk baino ekarpen handiagoa egiten dutela esango nuke. Magia bat sortzen da, eta difrutatzen saiatzen gara", dio Del Arcok.

Esku artean dituzten hiru proiektuei aurre egiteko, hamazazpi laguneko lan taldea sortu dute Rio de Orokoek. Udalekuetan zifra biderkatu egiten da; iaz ia 100 gaztek parte hartu zuten, txandaka.

### Emakumeen jabekuntza

Rio de Orokoa ez da ume sahararrentzako Durangaldeko udaleku bakarra. Harrera familien kopuruak behera egin zuenez azken urteetan, horren alternatiba lez Hamadako Izarrak egitasmoa sortu zuten. 15 ume ekartzen dituzte Atxondoko aterpetxera. 30 bat lagun ibiltzen dira begirale eta sukaldari lez, Garazi Etxebarriaren esanetan.

Aurten, errefuxiatuen eremuari begira proiektu bat ipini dute martxan, emakumeen jabekuntza helburu duena. "Heltzen da une bat ezkondu eta etxetik joateko, ala oso aurrerakoia zara eta kanpora ikastera zoaz. Baina errealitatea da hango neskek ez dutela *b plan*-ik. Horregatik, pizzeria bat muntatzera animatu gara, beste eremu batzuetan ere funtzionatu izan du-eta", azaldu du Etxebarriak. Elikagaien kamioian labe bat, ogia oratzeko makina bat eta 750 kilo zementu bidali zituzten egitasmoari hasiera emateko.

### Herriko gazteekin

Elorriotik hainbat proiektu garatu dituzte dagoeneko Tindufeko errefuxiatuen eremuan. Sahararrek elikagai ugari jasotzen dute hemendik, baina euren kabuz sortzea ere garrantzitsua dela uste du Lajwad elkarteko Maku Florentinok. "Aaiunen nekazaritza eskola bat dago, eta interesgarria iruditu zitzaigun horri laguntzea", adierazi du. Horren aurretik, kirol eremu bat eta futbol-zelai bat eraikitzen lagundu zuten. Gainera, Elorrioko ikasleek parte hartu izan dute zeregin horietan. 2010ean egin zuten lehen bi-

anboto komunikabideak
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org
2017ko martxoaren 17a
14. urtea - 669. alea
**Lege gordailua:** BI-2268/01
**ISSN:** 1578-7028
**Tirada:** 11.500 ale
**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.
**Erredakzio burua:** Markel Onaindia Txabarri.
**Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta.
**Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri.
**Publizitatea:** Itxaso Martinez de Arenaza Yarza eta Nagore Txintxurreta Isasi.
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urtiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, eta Maialen Zuazubiskar Gallastegi.
**Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa.
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

**Laguntzaileak:**
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua
Bizkaia foru aldundia diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

daia gazteek. “Kanpamentuak ez dira oporretarako leku bat; beraz, hangoekin berba egin eta premia batzuk zeudela ikusi genuen”. Horrela, ikaslerik ikasle, Sahararekiko elkartasuna herri osoan zabaldu da.

Horrez gain, karabana solidarioa eta Oporrak Bakean programa ere sustatzen ditu Lajwadek. “Gure elkartea sahararekiko eta hango borrokarekiko elkartasunez sortu zen. Arlo humanitarioa arlo bat da, gatazka politikoaren ondorio bat”, adierazi du Florentinok.

### Lurraldetik kanpo

Espainiaren kolonia izandakoa, 1976an Maroko eta Mauritaniaren esku utzi zuen, eta 1979an utzi egin zuten bigarrenek, Fronte Polisarioak hasitako borrokaren ostean. Mendebaldeko Sahararen independentzia aldarrikatu eta hainbat herrialdek onartu arren, okupatuta segitzen du oraindik, eta errefuxiatuak Aljerian daude. Egoera horrek baldintzatuta bizi direla nabarmendu du Del Arcok. “Sahararrak euren lurraldean egongo balira, uda normal bat pasatuko lukete, hondartzetan edo etxean. Baina han ez daudenez, tenperatura eta baldintza penagarrietan pasatu behar dituzte hile bi. Eta horregatik atera behar dira umeak handik”.

### Pertsonaletik kolektibora

Pertsona bakoitzaren olatuek eragiten ez badute, elkartasun itsaso hori ezin da sortu. Zerk eraman ditu boluntario hauek sahararren kausan inplikatzera? Ardura eta ekarpen pertsonala izan ditu berbagai Rio de Oroko kideak: “Espainiako kolonia bat izan zen, eta badugu erantzukizuna. Euskal Herria oso inplikatuta dago gai honetan. Durangaldeak, gazteek, erantzutea aberasgarria da, pertsonalki ere bai”.

Gaztetatik nazioarteko elkartasun brigadetan parte hartzen du Florentinok, eta ikasten jarraitzen duela dio. “Sahararena etxetik hurbil dago. Hamabi bat bidaia egin ditut hara, eta ikasten jarraitzen dut”. Bestalde, “politikoki zure herrirako gura duzuna besteentzat ere gura izatea” beharrezko ikusten du.

Errefuxiatuen desertua elkartasunez ureztatzen jarraituko dute Durangaldean.


Atxondon dute aterpetxea Hamadako Izarrak elkartekoek.


Elorriotik hainbatetan joan dira errefuxiatuen kanpementuetara.

## Mahaian plater bat gehiago jartzea da esfortzu ekonomiko bakarra

### Oporrak Bakean programan parte hartzeko deia egin dute elkarteek


Aurten Rio de Orokoek hartu dute Oporrak Bakean programaren ardura, Lajwadegaz batera.

Ume sahararrak udan etxean hartzeko kanpaina martxan dago, eta Rio de Oro zein Lajwad elkarteak harrera familia bila dabiltza. Umeen bidaiak, bisatuak eta aseguruak ez dituzte familiak ordaindu beharko, elkarteek eta udalek bere gain hartuko baitituzte. Diruagatik beldurrik ez izateko mezua zabaldu dute. “Mahaian plater bat gehiago ipintzea da, horrela laburbiltzen da. Ez zaie beste munduko ezer eman behar. Krisia behintzat ez dadila umeak ez hartzeko arrazoi izan”, esan du Rio de Oroko Mikel Del Arcok.

Elkarte biak herritarrak informatzeko prest daude, argi utzita deitzean ez dela konpromisorik hartzen. Rio de Orokoen kasuan, *riodeorodurango.com* edo 676 10 87 94 telefonora jo daiteke, eta martxoaren 31ra arteko epea dago inskripziorako. Lajwadek apirilaren 10era arte emango du izena emateko aukera, udaletxera edo 656 71 45 51 telefono zenbakira deituta.

> Florentino: “Ume normalak dira, familia egituratuetatik datoz eta oso maitatuak dira”

Aurreiritzien gainetik, sustatzaileek nabarmendu dute umeak pozik etortzen direla hona, baina pozik bueltatzen direla ere, han pozik bizi direlako. “Ume normalak dira, familia egituratuetatik datoz eta oso maitatuak dira”, esan du Maku Florentinok.






# Higiezinen zergak kaltetuta, 126 familiak errekurtsoa jarri dute

Indize altua jaso duten etxeetako familiek udalagaz akordiora heldu gura dute, errekurtsoa ipini arren

**DURANGO** M. Onaindia

Tabira, Galtzareta eta Santikurutz auzoetako 126 familiak errekurtsoa jarri dute epaitegian, udalak ezarritako higiezinen zergarako indize altuaren aurka. Hala ere, oraindik ere udalagaz akordiora ailegatzeko nahia erakutsi dute, eta batzartzeko eskaera egin diote.

Ondasun Higiezinen Zergako indize orokorra 0,2koa da, eta udalak ezarritako altua —Aldundiak 180.000 eurotik gora baloratu dituen 358 etxetan— 0,355ekoa. Ondorioz, 358 etxejabek dezente gehiago ordaindu beharko dute 2017an. 160 familia aldaketa horren aurka batu dira, eta guztien izenean 126 etxejabek udalaren araua errekurritu zuten joan zen barikuan.

> "Asmoa ez zen epaitegietara joatea, baina datuak eskatu eta ez digute erantzun"

### Epaitegia, "ez zen asmoa"

2017ko diru-bilketaren aurreikuspena eskatu zuten kaltetuek, tasa altuaren arrazoiak jakiteko. Baina Josune Escota kaltetuak dioenez, "udalak ere ez daki" zelako bilketa egingo den aurten. "Gure asmoa ez zen epaitegietara joatea, baina datuak eskatu eta ez digute erantzun. Momentuz, errekurtsoa ipini dugu, eta horrela, espedientea epaitegira eraman beharko dute", azaldu du Escotak. Udalak espedientea aurkezterakoan, kaltetuek errekurtsoagaz aurrera egin ala ez erabaki beharko dute.

Escotaren arabera, Bizkaiko arau forala Konstituzioaren aurkakoa dela ere salatuko dute.

### Indizea, hirutan aldatuta

Udalak hirutan eztabaidatu zuen indizearen inguruan. Ekainean, 0,5ekoa ezarri zuen 140.000 eurotik gora baloratutako etxeetan. Azaroan, langa 180.000 eurora igo zuten, EAJk, EH Bilduk eta PSE-EEk akordioa egin ostean. Baina kaltetuen haserrearen aurrean, berriro moldatu zuten abendu amaieran. Kaltetuek, EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak 0,29ko indizea proposatu zuten; EAJk eta PSE-EEk 0,37koa, eta PPk 0,355ekoa. Hori onartu zen, jeltzaleen eta sozialisten babesagaz.

> Orain arte, etxeei ezin zitzaien indize alturik ezarri, guztientzat berbera zen

Durangon sortutako polemika Aldundiak egindako katastroaren eguneraketaren eragitnez dator. Orain arte, etxeei ezin zitzaien indize alturik ezarri, guztientzat berbera zen, baina Aldundiak hori aldatu du, eta udalei indizeak aldatzeko aukera eman die. Bizkaia osoan 13 herritan ipini dute indize altua. Baina, Berangon adibidez, 2 milioi eurotan dago indizearen langa, ez 180.000 eurotan. Gainera, Escotaren arabera, Espainiako legedian debekatuta dago indize desberdina ezartzea.



Tabira inguruko etxe ugari daude indizeak kaltetutakoen artean.




60 upategitako ardoa dastatu ahalko dute bisitariek Ardosaltsan azokan. Irudian, iazko bisitari batzuk.

# Ardosaltsan azoka hamargarren ediziora ailegatuko da hilaren 25ean

Azokako jaki ia guztiak txingarretan prestatuko dituzte, nobedade moduan

**DURANGO** M.O.

10 urte igaro dira ardoaren eta delicatessen produktuen azoka martxan jarri zenetik. Martxoaren 25ean ailegatuko da hamargarren ediziora Ardosaltsan, eta inoiz baino eskaintza handiagoagaz, gainera. "Azoka handitzen doa pixkanaka, eta urtero berritzen goazenez, beti desberdina da", nabarmendu du Iñaki Uribe antolatzaileak.

60 bat upategik parte hartuko dute azokan, eta 20 bat delicatessen postu ere egongo dira. Jaki ia guztiak txingarretan egingo direla da aurtengo nobedadeetako bat. "Kalitatezko txuleta izango da plater nagusia", esan du Uribek. Olagarroa eta hanburgesak ere, besteak beste, txingarretan prestatuko dituzte. Jantokiari dagokionez, "zerbait informalagoa" eskaintzea erabaki dute. Bestalde, gazure –serum– krema izango da produktu berrietako bat. Aurkezpena eta dastaketa egingo dute bertan.

"Azoka didaktikoa" izatea da helburua, eta, horregatik, hainbat dastaketa egin ahalko dira; horietako batzuk Saltsaneko sukaldarien eskutik. Uribek gogoratu du azokako produktuak euren dendan eskuratu ahalko direla urtean zehar ere.

# Ampuero euskaltzalea gogoratu du Gerediagak

Euskal Jaiak bultzatu zituenetako bat izan zen

**DURANGO** M. O.

Jose Maria Ampuero euskaltzalea gogoratu du Gerediaga elkarteak, haren heriotzaren mendeurrenean. Durangoko alkate izateaz gainera, euskal kulturaren aldeko ekintzaile izan zen Ampuero. Pinondoko Etxe Zurian bizi zen, geroago Paco de Lucía musikariaren oporleku izan zena, Ampueroren ondorengo bategaz ezkondu baitzen.

Karlista izan zen Ampuero, eta bando bien arteko gerra sasoian alkate izan zen Durangon, 1874an. Merinaldeko ordezkari eta Madrilgo gorteetako diputatu ere izan zen gerra amaitu eta gero. Hala ere, batez ere euskaltzaleen artean "pertsona garrantzitsua" izan zelako gogoratu du Gerediagak. Besteak beste, Durangon eta Iurretan Euskal Jaiak bultzatu zituenetako bat izan zen, eta horri esker, Durangaldeko Dantzari Dantza eta Ezpatadantza berreskuratu ziren, "hilzorian" zeudenak Gerediagakoen ustez.

Aparte, nekazarien elkarteak ere bultzatu zituen, baita *Nezcazariyen cartilachua Bizcaico Eusqueran* liburua argitaratu ere.



Durangoko Udal Artxiboa

Ampuero alkate izan zen Durangon.


Herritarren babesa ere jaso izan dute errefuxiatuek elkarretaratzeetan.

# Durangon babes hartuta zeuden errefuxiatu kurduek alde egin dute

## Hainbat iturriren arabera, Teruelen agertu dira, orain ere kamioi batean

**DURANGO** Markel Onaindia
Kamioi baten barruan Elorrion agertu eta astebetera, alde egin dute Durangon babes hartu zuten errefuxiatuek. Durangoko Udalak azaldu du gizarte zerbitzuetako arduradunak kurduak zeuden larrialdiko pisuetara joan zirela astelehenean, baina dagoeneko ez zeudela han. Hainbat hedabideren arabera, Teruelen (Aragoi) agertu dira, orain ere kamioi baten barruan.

CEAR-Euskadik azaldu zuenaren arabera, errefuxiatuek asilo politikoaren eskaera egiteko asmoa agertu zuten. Hala ere, euren helburua Ingalaterrara heltzea ei zen bidaia hasieran.

### "Tratua eskertu dute"

Durangoko alkatearen esanetan, esker hitzak izan dituzte kurduek. "Gure udalerriak eskainitako tratua eskertu dute". Gainera, administrazioen arteko koordinazio lana ere azpimarratu du Aitziber Irigorasek. Pilar Ríos alkateordeak nabarmendu du baliabideak eskaini dizkietela. "Ahal izan dugun guztia egin dugu hemen gustura egon daitezen. Euren erabaki askatasuna errespetatzea besterik ez daukagu", gaineratu du alkateordeak.

Bestalde, errefuxiatuen aldeko taldeak *Nacido en Siria* filma eskainiko du martitzenean, 19:00etan, San Agustinen.

# Durango eta Kobane senidetzea ospatuko dute

**DURANGO** Markel Onaindia
Martxoaren 25ean Durango eta Kurdistango Kobane hiria senidetzea ospatuko dute, Plateruenean egingo den jaialdi bategaz. Izan ere, egun bat lehenago, hurrengo barikuan, egingo dute senidetzeko ekitaldi ofiziala udaletxean. Kobanez gainera, Bartzelona ere senide lez hartuko du Durangok; hirurak bonbardatuak izandakoak dira. Kurdistango ordezkari bat eta Jaume Asens Bartzelonako alkateordea etorriko dira.

Durangaldeko lagun talde bi Kurdistanen egon ziren iaz, eta hortik dator senidetzearen ideia. Rojavan dago hiria, Siriako partean. Mikel Gandarias, Adrian Zelaia eta Jon Bingen Landabidea durangarrak bertan egon ziren, Markel Brouard bilbotarragaz batera.

25ean, 18:00etan hasita, Kurdistango kultura eta gastronomia ezagutzeko aukera egongo da. Bestalde, berbaldi bat antolatu dute gaurko. San Agustinen izango da, 18:00etan.




# Fraile hurbiltzeko eskaera ez du tramitera onartu Konstituzionalak

Hurrengo pausoa Estrasburgo da. "Ezin dugu 5 urtez itxaron" diote senideek




Fraileren alde giza-sarea burutu zuten abenduan, Abadiñon.

**DURANGO** Markel Onaindia

Gorka Fraile preso durangarra Euskal Herrira ekartzeko eskaera ez du tramitera onartu Konstituzionalak. Minbizia topatu zioten 2015ean, eta gaixo larrien zerrendan kokatuta dauka Etxeratek. Konstituzionalaren ezetza jakinda, hurrengo pauso judiziala Europako Giza Eskubideen Auzitegira jotzea litzateke. Baina hurbiltzeko eskaerei bost urteko epera erantzuten ari dira Estrasburgon. "Gorkaren kasua larria da, eta ezin dugu 5 urtez itxaron", esan du Ainhoa Sergio senideak.

Auzitegi Konstituzionalaren erabakia kritikatu dute senideek. "Diote ez dela Konstituzioaren artikulurik urratzen, baina Konstituzioak berak dio presoek etxetik gertu egon behar dutela", azaldu du Sergiok. "Aurpegira barre egiten ari direla dirudi, eta horrek min ematen du", Fraileren lehengusinaren esanetan.

"Aurpegira barre egiten ari direla dirudi, eta horrek min ematen du", lehengusinaren esanetan

## Berragertzeko beldurra

Fraile preso durangarrari 2015ean topatu zioten minbizia, mingainean. Ebakuntza egin eta gero, iaz burututako TAC azterketan emaitza ona eman zuen. Momentuz, "egonkor" dagoela dio Sergiok, eta maiatzean beste errebisio bat egitea aurreikusten dutela. Baina senideak minbizia berragertzeko beldurrez daude; Oier Gomez presoari gertatu zaio hori, minbizia eduki eta hiru urtera.

Ebakuntzan poliziaren "tratu txarra" salatu zuen Frailek, eta ebakuntza egin eta urtebete pasatu arte errebisiorik egin ez izana ere bai. Bere eskubideen defentsan plataforma bat sortuta dago Durangon, eta hainbat herritar mobilizatu dira babesa emateko. Durangoko Udalak ere bere alde egin zuen, beste zenbait instituzioren artean.

# Bizkaiko Gurutze Gorriak lokala zabaldu du asteon Elorrion

Elorrion zenbait gizarte proiektu garatuko dituzte

**ELORRIO** J.Guenetxea

Bizkaiko Gurutze Gorriak lokala izango du uztailera arte Elorrion, duela gutxira arte udaleko gizarte langilea zegoen bulegoan, Udaltzaingoan. Elorrioko Udalak prentsa oharrean azaldu duenez, Bizkaiko Gurutze Gorriagaz sinatutako akordioaren bitartez, herrian zenbait gizarte proiektu garatu ahalko diren aztertuko dute datozen hilabeteetan.

Hasieran, Bizkaiko Gurutze Gorriak pertsona nagusientzat eta etorkin zein errefuxiatuentzat zuzenduriko bi ekimen sozial jarriko dituela martxan iragarri du udalak. Pertsona nagusientzako programak herritarren boluntario bidezko konpainia zerbitzua sustatuko du. Horrez gain, teleasistentzia zerbitzua eskainiko dute, eta bestalde, zahartze aktiboagaz zerikusia duten teknologia berrien tailerrak eta aisialdiko jarduerak ere martxan jarriko dituzte.

Etorkin zein errefuxiatuentzako programari dagokionez, hizkuntza bikoteen bitartez hizkuntza boluntariotza programa bultzatzea dute helburu.Gaineratu dutenez, "aisialdiko ekintzekin eta hitzaldiekin kultur aniztasuna sustatu eta harrera erraztea da helburua". Horrez gain, Gurutze Gorriko lokalean aholkularitza juridikoa ere eskainiko diete premia hori duten herritarrei.



Uztailera arte, Bizkaiko Gurutze Gorriak Elorrion izango du lokala.

# Ireki dute umeendako jolasgune berria plazan

Gune berriko jolas asko egurrez egindakoak dira



Umeekin egindako partaidetza prozesutik irten zen jolasgunearen ideia.

**MAÑARIA** J.D.

Plazako jolasgune berria erabilgarri dago. Orain aste bi ireki zuten. Itsasontzi itxura hartuko duen kioskoan, txirristak eta sokak ipini eta inguru osoan zehar askotariko txin-txaunak gehitu dituzte. Jolas berri horietako asko egurragaz egindakoak dira .

Herrian 0-10 urte arteko 50 bat ume daude, eta jolasten herrian geratu daitezela da udalaren helburua.

## Francisca Ortuzar omendu dute, 100 urte egin ditu eta

**MAÑARIA** J.D.

1917ko martxoaren 9an Abadiñoko Traña-Matiena auzoan jaio zen Francisca Ortuzarrek ehun urte egin zituen joan zen astean. Urte askoan Mañarian bizi izan da, eta gaur egun Zornotzako Jose Maria Azkuna egoitzan bizi da. Mendeurrena ospatzeko ekitaldia egin zioten egoitzan, eta senide eta lagunekin batera, hainbat elkarte eta erakundetako ordezkariak batu ziren.



Francisca Ortuzar.

## Jubilatuen elkarteak urteko batzarra egingo du domekan

**IZURTZA** J.D.

San Jose egunean egin ohi duten moduan, domekan urteko batzarra egingo du Erdoitzako Ama jubilatuen elkarteak. Plaza ondoan duten lokalean elkartuko dira, 12:00etan.

Gaur egun 32 bazkide ditu elkarteak. Zortzi euroko kuota urte askoan mantendu dutenez, aurten hamar eurora igotzea proposatuko dute. Egoera ekonomiko "ona" dutela adierazi du Karmelo Irastorza elkarteko presidenteak, eta gutxi gorabehera sarrerak gastuekin parekatzea lortu dutela. Aurtengo plangintzaren gainean, ekainean irteera bat egiteko asmoa dutela aurreratu du. Batzarraren ostean luntxa eskainiko dute.

## Bizimodua euskaraz egiteko gakoak eskainiko ditu Ayestak

**MALLABIA** J.D.

Aldaketa sakona da hizkuntz ohitura berriak barneratzea, eta bide hori egiteko gakoak eskainiko ditu Karmelo Ayestak datorren eguaztenean, 18:30ean, Kontzejuzarren eskainiko duen hitzaldian. *Goza daiteke gehiago: Euskaldun baten hizkuntza-bidaia* liburuan eguneroko bizimoduan euskararen erabilera sustatzeko hainbat ideia jasotzen ditu, eta horiek izango ditu ardatz hitzaldiak. Ideia horien iturria bere lana eta zaletasunak izan dira. Ayesta ingeniaria da ofizioz, eta bere afizioen artean txirrindularitza dago. Udalak eta Berbalagunek antolatutako hitzaldia Korrikari begira osatu duten egitarauko parte da.



Felipe VI.a erregea eta Iñigo Urkullu lehendakaria Ormaetxeako azpiegiturak bisitatzen.

# Ormaetxea enpresaren urteurrenean parte hartu du Felipe VI.a erregeak

## EH Bilduk, Hiri Ekimenak eta LABek erregearen etorrera kritikatu dute

**ZORNOTZA** J.Derteano

Zornotzako Boroa industrialdean kokatuta dagoen Ormazabal enpresak 50 urte egin ditu, eta martitzenean urteurrena gogoratu zuten Felipe VI.a erregea buru izan zuen ekitaldian.

Erregeaz gain, erakunde askotako hainbat goi kargu batu zituen urteurren ospakizunak: Iñigo Urkullu lehendakaria eta Bizkaiko ahaldun nagusi Unai Rementeria, besteak beste.Espainiako Erregeak enpresako azpiegiturak bisitatu zituen, eta banaketa zelda bateko karkasa sinatu zuen. Karkasa berezia da, enpresak ekoiztu duen milioigarrena delako. Bisitaren ostean, Jabier Ormaetxearen enpresako presidenteak orain arteko bidea errepasatu eta etorkizunera begirako erronkak azaldu zituen. Urteurrena gogoratzen duen plaka bat bistaratuz amaitu zuten ekitaldia.

> Ormaetxeak ekoiztu duen milioigarren banaketa zelda bateko karkasa sinatu zuen erregeak

### 50 urteko ibilbidea

Ormaetxea 1967an sortu zuten, eta gaur egun munduko hainbat enpresa batzen dituen Velatia taldeko sorburua da. Erdi tentsioko sare elektrikoen enpresentzat hornitzaile garrantzitsuenetakoa da Ormazabal. 1.600 bat behargin ditu, eta urtean 370 milioi euroko negozio zifra sortzen du. Beragaz batera, beste hamar enpresa daude Velatia taldean, eta munduan zehar zabalduta dituzte fabrikak.

### Erregearen etorreraren aurka

Zornatzako EH Bilduk “desadostasun osoa” erakutsi du erregearen etorreraren aurrean. “Ez ditu Zornotzako herritarrak ordezkatzen”, adierazi dute. Koalizioaren ustez, herritarrek “argi eta garbi eta behin baino gehiagotan” adierazi dute sentimendu hori, “Estatu Espainoleko Koroatik modu irekian desmarkatuta dauden indar politikoei botoa emanez”.

Hiri Ekimena ere bisitaren “aurka” agertu da. Espainiako erregeak “bizi duen errealitatea ez da zornotzar gehienek bizi dutena”, adierazi dute. Horrez gainera, “ez dugu gura erregea etortzeak dakartzan segurtasun neurri denak gure zergekin ordaindu daitezen”.

LABek deituta kontzentrazioa egin zuten martitzenean enpresaren parean. Sindikatuak gogor kritikatu zuen, besteak beste, Jabier Ormaetxea enpresako presidentea. “Kostuak merketzea helburu besterik ez duen industria politika inposatu gura” izatea eta “kapitalaren mesedetan lan baldintzak prekarizatzea” leporatu zioten. “Lan baldintzen suntsipena eta eskubide galera dira euren politikaren oinarri”, salatu zuten ohar batean.

# EH Bildurentzat “atzerapauso itzela” da Aitaren Eguneko kartela

**ZORNOTZA** J.Derteano

Dendariak elkarteak Aitaren Egunaren harira abiatutako zozketa iragartzeko erabili duen kartela “erretiratzeko” eta “egokiagoa den bat jartzeko” eskatu du Zornotzako EH Bilduk. “Ez zaigu ondo iruditzen aitatasunaren inguruan eman gura den irudia. Aisialdiagaz lotzen da, eta gugaz bat ez datozen balioak transmititzen ditu”, salatu dute beren blogean. “Atzerapauso izugarria ematen da umearekiko ardura partekatuak aldarrikatzen diren bitartean”, gaineratu dute. Era berean, “berdintasun saileko arduradunek emandako erantzunak plazaratutako kezka areagotu besterik ez du egiten”, esan dute.

Dendariek elkarteko arduradunek honetaz adierazpenik ez dutela egingo azaldu dute.



Karteleko irudia.



Arriaganeko industrialdean dago kamioien aparkalekua.

# Kamioien aparkalekuak 55.000 euroko defizita du

**ZORNOTZA** J.Derteano

Arriaganeko kamioien aparlekua defizitarioa izan da udalarentzat. Urtero 55.000 euroko galerak eragin ditu, udaleko iturrien arabera. Izan ere, zerbitzu moduan eskaintzen zuen, eta kamiolariek ordaindutako tasa baten truke gastu denak udalaren kontura ziren. Zaintza fisikoa zen gasturik handiena.

Egoera horren aurrean eta zaintza fisikoaren kontratua amaitzen zela ikusita, erabaki hau hartu dute: zerbitzu moduan eskaini beharrean, jabari publikoko okupazio moduan erregulatzea ordenantza bidez. Azken udalbatzarrean EAJ, PSE eta Hiri Ekimenaren aldeko botoekin onartu zuten. Honen ondorio bat da aparkalekuko atea beti zabalik egongo dela. Lapurreta kasuan, ondasunen gaineko erantzukizunik ez izateko hartu dute erabaki hori. EH Bildu abstenitu egin zen bozketan. Atea “beharrezko” ikusten dutela eta ordenantza “labur” geratzen dela uste dute.

# Maiatzera arte aurkeztu daitezke lanak ipuin lehiaketara

**ABADIÑO** I.E..

Herriko ikastetxeetan dabiltzan LHko hirugarren mailatik DBHko laugarren mailara arteko ume eta gazteei zuzendutako ipuin lehiaketa antolatu du Abadiñoko Udalak. Abadiñotik kanpo ikasi arren herrian erroldatuta dauden umeek ere parte har dezakete lehiaketan.

Adinaren arabera banatutako lau kategoriatan burututo dute lehiaketa, eta kategoria bakoitzeko hiru sari emango ditu epaimahaiak. Ekainaren 16an, Zelaietako Txanporta kultur etxean egingo dute sari banaketa ekitaldia.

Ipuinen gaia librea izango da, eta idazlanek 100 berba izan beharko dituzte, gutxienez. Maiatzaren 12ra arte, Errota kultur etxean zein Udal Mediatekan aurkeztu ahalko dituzte parte-hartzaileek euren lanak.

# Erotismoari eta autoezagutzari buruzko tailerra, emakumeentzat

**ZALDIBAR** I.E.

Erotismoaren eta autoezagutzaren inguruan jardungo dira Zaldibarko Udaleko Berdintasun Sailak martxorako antolatu duen ahalduntze ikastaroan. Martxoaren 29an, 17:30ean, Liburutegi Zaharrean izango da ikastaroa, eta martxoaren 24ra arte, udaletxean, liburutegian zein *berdintasuna@zaldibar.eus* helbidean eman ahalko da izena. Aurrez eskatuz gero, ikastaroak irauten duen tarterako haurtzaindegi zerbitzua ere eskainiko dute.

Clara Wolframek gidatuko du “gure gorputz eta gogoen jabe sentitzeko espazio bat sortzea” helburu izango duen tailer hori. Adin guztietako emakumeei egindako proposamena da Zaldibarko Udaleko Berdintasun Sailak martxoaren 29rako egingo duena.

# Udal eraikinetan efizientzia energetikoa hobetu gura dute

**ATXONDO** M.Z.

Azken ezohiko bilkuran gobernu taldeak jakitera eman zuenez, udal eraikinetan efizientzia energetikoa hobetu gura dute. Hori lortzeko asmoz, udalarenak diren eraikinetan leihoak, galdarak... aldatu gura dituztela jakitera eman zuten. “Badakigu gutxiago kontsumitzeak eta gutxiago kutsatzeak onura izugarriak ekartzen dituela. Beraz, diru-laguntza bat eskatu eta udal eraikinak hobetuko ditugu”, adierazi zuen Dabid Cobos alkateak.

> Gutxiago kontsumitzeko asmoz, udal eraikinetan hainbat hobekuntza egin gura dituzte

# Orozketarako bidetik sarbide zuzena dute Santa Apoloniara

Lanek sei aste iraun dute eta 161.469 euroko aurrekontua izan dute



Astelehenean zabaldu zuten Santa Apolonia auzoa Orozketarako bideagaz lotzen duen errepidea.

**IURRETA** Aitziber Basauri
Urtarrilean hasi zituzten Santa Apolonia auzoa Orozketarako bideagaz lotzeko lanak, eta barikuan amaitu zituzten. Lanek sei aste iraun dute eta 161.469 euroko aurrekontua izan dute. Aurreikusi baino aste bi lehenago amaitu dituzte, Iñaki Totorikaguena alkateak azaldu duenez.

Santa Apolonian trenbideko pasagunea itxi zutenetik, Durangotik baino ezin izan da sartu Iurretako Santa Apolonia auzora. Orain bertotik ere sartu ahal izango da. “Auzorako eta bertako industrialderako sarbidea asko hobetuko du lotune berriak”, argitu du alkateak. Luzeran 75 metro inguru dituen lotunea eraiki dute. Argiteria ere hobetu dute, eta ur-hornikuntzarako zein urak batzeko lanak ere gauzatu dituzte.

### Ibilbide zirkularra

Lan horiekin batera, Iurreta eta Durango lotzen dituen Arandiako bidegorria ere luzatuko dute, ingurabideko tuneleraino. Guztira, 400 metro gehituko dizkiote bidegorriari, eta argiteria ere hobetuko dute lau kale-argi gehiago jarrita. “Ibilbide zirkularra osatu dugu: Arandiatik Orozketara doa bidegorria, eta handik Amuruagako baserrietaraino. Arriandira jaitsi daiteke bertatik, eta Berezi eta Mallabienatik zehar Iurretara heldu daiteke berriro ere”, azaldu du Totorikaguena alkateak.

Lasuen enpresa arduratu da lanez. “Batez ere, Santa Apoloniako auzokoentzat hobekuntza garrantzitsua izango da, gainerako iurretarrei ere eragingo diena”, dio Totorikaguenak. Barikuan amaitu zituzten lanak, baina astelehenean zabaldu zuten lotunea ibilgailuentzat.

## IU! Gazte, gazteen nahiei erantzuteko lehen urratsak

**IURRETA** Aitziber Basauri
IU! Gazte, gazteria zerbitzua zehazteko prozesua abiatu du Iurretako Udalak. Herriko 12 eta 16 urte arteko gazteen behar eta nahiak detektatu, eta “hauei erantzuteko ekintza eta baliabide aproposenak” landuko dituzte prozesu horretan. 2017ko udal aurrekontuan 10.000 euroko diru-atala dute lotuta horretarako.

Hiru fasetan garatuko da IU! Gazte: *Ikertu*, *Sortu* eta *Definitu*. Lehenengo fasea amaituta, 2. faseari ekiteko tailerrak antolatu dituzte: martxoaren 24 eta 31rako, 17:30ean, kultur etxean. Parte hartzeko edo ideiak emateko *kultur-etxea@iurreta.eus* helbidera idatzi behar da ‘Eta zuk, ze ideia dituzu?’ galderari erantzuna emanez.




## Aparkalekuagaz dauden arazoak zelan konpondu aztertuko dute

**OTXANDIO** J.D.
Herriko gune batzuetan autoak espaloi gainean edo behar ez den tokian aparkatu izan dira. Horrek herrian aparkatzeko dauden toki eta aukeren gaineko hausnarketa eragin du udalean. Arazo horri irtenbide bat ematea beharrezko ikusten dute, baina “irtenbide integral” bat izan dadila gura dute, Urtzi Armendariz alkateak adierazi duenez. Herriko bertako zenbait zonaldetan zein auzoetan egon daitezkeen tankera horretako arazo denak jakin gura dituzte, ondoren denak barruan hartuko dituen plangintza bat osatzeko. Horretarako, bizi diren inguruan ikusi dituzten aparkaleku arazoak jakinarazteko eskatuko diete herritarrei, egoeraren ikuspegi oso bat izan dezaten.

# Eguaztenean irekiko dute udalekuetako izen-ematea

Uztailerako antolatu dituzte aurtengo udalekuak

**BERRIZ** M.Zuazubiskar
Uztailerako udaleku irekiak antolatu dituzte Berrizen. Adinaren arabera, lau taldetan banatuko dituzte udalekuetan izena ematen duten gazteak. Haur hezkuntzako umeek eta lehen hezkuntzakoek uztailaren 4tik 21era izango dituzte udalekuak, eta derrigorrezko bigarren hezkuntzakoek, berriz, uztailaren 10etik 21era.

Martxoaren 22tik apirilaren 12ra eman daiteke udalekuetan izena, eta lehentasuna herritarrek izan arren, herrian erroldatu gabeek ere eman ahalko dute izena.

## Talde berak segiko du nagusien elkartea zuzentzen

**GARAI** M.O.
Joan zen asteburuan urteko batzar orokorra egin zuten Garaiko San Migel nagusien elkartekoek, balantzea egin eta aurrera begirako erronkak aztertzeko. Orain arte zuzentzen ibilitako taldeak segitzea erabaki zuten, besteak beste. Momentuz, urte birako konpromiosa hartu dute juntakideek.

### Gastuek gora

62 bazkide ditu elkarteak, eta 30 bat agertu ziren batzarrera. Talde eragileko kideek azaldu dutenez, azkenaldian gastuak handitu egin zaizkie, eta, horregatik, udalari diru-laguntza handiagoa eskatzeko asmoa agertu dute.

# Trenaren tarifa berrien aurka mobilizatu dira

Protestak egin dituzte Berrizen eta Zaldibarren




Berrizen, joan zen barikuan lez, gaur ere aterako dira kalera.

**DURANGALDEA** I.Esteban
Bizkaiko garraio publikoaren zonifikazio eta tarifikazio berriek Berriz eta Zaldibarko erabiltzaileentzat ekarriko duten prezio igoeraren aurrean mobilizazioak egon ziren, joan zen bariku iluntzean, herri bietan. Dozenaka lagunek parte hartu zuten asanblada informatiboetan, eta *Igoerarik ez* lemapean burututako kontzentrazioetan. Erabiltzaileek mobilizazio gehiago egingo dituzte gaur.

Iaz ere tarifa aldaketa ezarri zuten, baina presioaren eraginez, behin-betiko bihurtu arte atzera egitea erabaki zuten. Orain, berriro ere, Berriz eta Zaldibar Durangaldetik kanpo atera dituzte tarifa eremuan. Zonalde eta tarifa aldaketa horregaz erabiltzaileak “asko kaltetzen” direla adierazi diote udalek Partzuergoari; izan ere, herritar gehienek batez ere erabiltzen duten zerbitzua, Durangorakoa, garestitzen zaie.

Udal biek osoko bilkuretan landu dute gaia asteon. “Herritarren defentsan arituko direla” berretsi dute.

# Gueñes-Itsaso goi tentsioko linea bertan behera uztea eskatu dute

## Osasunerako eta ingurumenerako kaltegarria dela uste dute aurkariek



EHNE eta Eguzkikoak, Zaldibar, Garai, Igorre, Antzuola eta Elgetako alkateak, eta Berriz, Zornotza eta Iurretako zinegotziak.

**DURANGALDEA** M.O. / M.Z.

Gueñesetik Itsasora (Gipuzkoa) goi tentsioko linea elektriko bat sortzeko proiektua zabaldu zen 2011n. Alegazioen ostean, sei urtez *stand-by* egoeran egon da, eta orain, Espainiako gobernuak berriro aktibatu gura du, 2018an eraikitzen hasteko. Bada, egitasmoaren aurkako aldarria egin zuten prentsaurrekoan EHNEk, Eguzkik, EH Bilduko hainbat kargudunek eta Garaiko alkateak. Proiektua bertan behera uztea eskatu dute.

26 herritan zehar igarota, 74 kilometroko ibilbidea izango du linea berriak, 30 metroko zabaleragaz. Ingurumenean eta herritarren osasunean kaltea ekarriko duela uste dute aurka agertu diren eragileek. "Lerroak minbizia-eragile direla dioten azterketak ugariak dira", azaldu dutenez. Gainera, estatuan ezarritako esposizio neurriak zaharkituta daudela ohartarazi dute. "Gure osasuna eta ingurumena, beste behin ere, oligopolio baten mesedetan jartzea da linearen helburua", kritikatu dute.

Linea sortzeko motiboa, "enpresa elektriko handiek negozioak mantentzea eta argindar fakturak igotzen jarraitzea" dela uste dute. "Benetako arrazoia, espainiar sistemaren gainprodukzioa Frantziara eramatea da", gaineratu dute.

Udaletan hasi dira lurjabe kaltetuekin alegazioak garatzen. Berrizen, esaterako, aho batez onartu zuten aurkako mozioa EAJk, EH Bilduk eta PSE-EEk. Udal teknikaria aurkako txosten bat prestatzen dabil, eta kaltetuei zein herritarrei atxikimendua eskatuko diete. Iurretako udal batzordean ere aho batez egin dute aurka.

## Galdeketaren aldeko abestia egin du Elorrioko Gure Esku Dagok

**DURANGALDEA** M. Onaindia

Gure Esku Dagokoak herririk herri babesa jasotzeko kanpainetan murgilduta daude. Zornotzan, esaterako, hainbat gazteren eta futbolariren atxikimendua jaso dute azken astean. Elorriarren kasuan, galdeketaren aldeko abestia sortu dute herriko hainbat musikarigaz, eta laster egongo da entzungai. Kimetz Zenitagoia *Dummy*ren musika eta Ibai Guridiren letra ditu, eta eurez gainera, HAN taldeko Nerea Lersundik, Bultz taldeko Xaguk eta Arantza eta Pantxok parte hartu dute, besteak beste.

Bestalde, bihar ekitaldia egingo dute, plazan, 18:30ean.

### Abadiñon, galderak prest

Durangon, Zaldibarren eta Abadiñon ere egingo dute galdeketa maiatzaren 7an. Hain zuzen ere, Abadiñon dagoeneko prest dute herritarrei galdetu beharrekoa. Erantzun beharreko lehen galdera honakoa izango da: "Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?". Horri baietz esanez gero, hauxe bigarrena: "Nahi al zenuke euskal estatu hori independentea izatea?". Durangon berbaldia egingo dute 23an, 19:00etan, Plateruenean, Garbiñe Biurrun, Elixabete Piñol eta Laura Mintegigaz.

**DURANGALDEA ASTEON**

### Baserriko hondakinak birziklatzeko aukera

**DURANGALDEA >** Aurten ere baserriko hondakinen gaikako bilketa burutuko da Durangaldean. Hondakin fitosanitarioak Durangoko Garbigunean jasoko dira, eta hondakin zoosanitarioak Abadiñoko DIBA kooperatiban: baserriko hondakin plastikoetarako, izena eman beharra dago, 94 620 36 11 telefonoan.

### Bizidunen lan ildoetako bat, kultura bultzatzea

**DURANGALDEA >** Biziduneko kideek batzar nagusia egin dute, eta, besteak beste, aurrera begirako asmoak zehaztu dituzte. Kulturari bultzada ematea, mendi ibilaldiak burutzea eta udalerrian gehiago eragitea dira horietako batzuk. 72 bazkidek parte hartu zuten batzarrean aurrekontuak ere onartu zituzten.

### Elikadura ohiturak aldatzeko programa

**DURANGALDEA >** Amankomunazgoak programa pilotu bat garatu du herritarren elikatzeko ohiturak aldatzen laguntzeko. Maiatzaren 2a baino lehen Amankomunazgoaren webgunean izena ematen dutenen artean, produktu ekologikoz hornitutako erosketa-saski bat zozkatuko dute.

**SEI HANKAKO MAHAIA**

**PILAR RIOS**
PSE-EE



### Durango errefuxiatuekin

Gure herriak zuzenean ezagutu ditu gatazka armatuak, gatazka horiek sortutako nahitaezko migrazioak, jazarpenak, giza eskubideen bortxaketa masiboak eta interkulturalitatea. Erabat sinetsita nago horregatik jakin duela Durangok egoki jarduten, bonbardaketatik, gerratik eta gabezietatik ihesi zihoazen bi familia aurkitu ditugunean.

Larria izan beharko zuen gero egoerak herrialdean, familiak ihes egiteko erabakia hartzeko, etxea, lagunak, senideak atzean utzi, eta, helmuga jakin arren bidaiari ekiteko, bidaia hori nolakoa izango zen eta zenbat iraungo zuen jakin gabe.

Hurbil dugu Durangoko bonbardaketaren 80. urteurrena, eta, lehen esan dudanez, gure udalerrian ondotxo dakigu zer den biztanle zibilen kontrako eraso indiskriminatuen biktima izatea. Hortaz, ondo ulertu behar dugu zein egoeratan dauden munduan barrena diren gerretatik ihesi doazen milioika lagun horiek. Horregatik, zalantzarik gabe jarri ditugu gure baliabide guztiak errefuxiatu kurduen esku, eta laguntza eman diegu, beste administrazio eta elkarte batzuekin koordinatuta. Esker oneko azaldu dira une oro, eskaini diegun laguntza humanitario eta juridikoagatik; eta, azkenean, bidaian aurrera egitea erabaki dute. Hautatzeko askatasuna dute, eta orain errespetatu besterik ezin dugu egin, ez dakigulako zein baldintzatan hartu duten erabakia.

**IRITZIA**

### Iurretako dantzarien iritzia, herriko plazako lokalen inguruan

Duela bi asteko ANBOTO irakurrita, Iurretako Udala plazako lokalak saltzeko prest dagoela jabetu ginen. Saltzeko arazorik ez, baina herriko taldeei leku fisiko bat emateko bai, dirudienez.

Dantzariok, adibidez, asko kostata eskuratu genuen lokala daukagula esan genezake, nahiz eta trasteak sartzeko baino ez duen balio. Honekin guztiarekin ez goaz txokoa egin nahi duten herritarren kontra, hauek eskubidea baitute lokala eskatzeko, baina udalaren jarrera ez zaigu egokia iruditzen.

Azken urteotan, Iurretako hainbat elkarte eta eragilek sarri jo dugu udaletxeko atea, gure beharrak aseko dituzten aterpeen eske. Alabaina, udalak bere jabetzako lokal gehiago ez zuela-eta, ez die gure eskaerei erantzun. Plazako lokalena da orain salbuespena. Lokal horiek udalaren jabetzakoak izanik, udalaren aurrekontuen eta borondate politikoaren esku gelditzen da lokal horien biharko eguneko erabilera.

Gure ustez, ekintza kulturalak sustatzen dituzten taldeen beharrizanak lehentasuna dute ekimen pribatuen beharrizanen aurrean. Horregatik, lokal horiek herrira zabaltzea eta taldeen nahiak asetzea eskatzen dugu.

Olatz Plazaola dantza taldeko lehendakaria eta Asier Totorika lehendakariordea, IURRETAKO DANTZA TALDEAREN izenean.

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

**DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidaltako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

## Berbaz

**Garazi Arrizabalaga Cabrerizo** | Arte eta Historia Museoko eta Kurutzesantu Museoko zuzendaria | Berriz, 1984

# "Picasso egongo da Durangon; aukera izugarria da, inoiz izan ez dena"

Martxoaren 31ren harira, Picassoren bi grabatu erakutsiko dituzte Arte eta Historia Museoan

> BERBAZ Aitziber Basauri

**Ekainean hartu zuen Arte eta Historia Museoaren ardura Garazi Arrizabalagak. Erronka handia izan dela aitortu du Artearen Historian lizentziatuak, baina "pozik" eta "lan egiteko gogoagaz" ari da karguan. Otsailetik buru-belarri dabil martxoaren 30ean zabalduko duten Picassori buruzko erakusketa antolatzen. Lan handia eskatu duela dio, baina aukera "izugarria" dela esan du.**



**Ekainean urtebete egingo duzu Arte eta Historia Museoko zuzendaritza hartu zenuela. Erronka handia izan da?**
Bai. Erantzukizun handiko kargua da. Baina horretarako prestatu naiz urteetan, eta banuen gogoa halako kargu garrantzitsu bat hartzeko. Erabakiak hartzeko ere bai. Ez da hainbeste denbora kargua hartu dudala, baina pozik nago eta lan egiteko gogotsu.

**Zeintzuk dira museoari begira zehaztu dituzun helburuak?**
Museoa gehiago zabaldu gura nuke, herritarrak erakarri. Non dagoen, zer egiten den ezagutu dezaten. Durangon, eta Durangaldean, denek ez dakite non dagoen museoa. Hori aldatu gura dut.

**Ahulguneetariko bat da hori?**
Bai. Pertsona finko batzuk etortzen dira normalean, eta traba hori saihestu gura nuke, ahalik eta jende gehien bertaratatzeko.

**Museoa "bizi" egin behar dela uste duzu. Zer esan gura duzu?**
Asteburuko plana egitean museora joatea aukera bat izatea, adibidez. Museo bat ez da bakarrik sartu eta gauzak ikusteko, hainbat ekintza egin daitezke, eta horretan ari gara lanean. Ez genuke gauza estatiko bat lez ikusi behar, beste modu batera ikusi eta bizi beharko genuke.

**Arte eta Historia Museoak gaurkotu beharra du?**
Museoak aldatu egin behar dira, historia bera ere aldatu egiten da. Gauza berriak ikasten ditugu, eta hori ikusi egin behar da museo batean. Ez dira leku itxiak, finkoak. Aldatu egin daitezke. Museoa bizi egin behar da, eta horretan eragin gura dut.

**Zeintzuk dira Arte eta Historia Museoaren helburuak?**
Batetik, durangarrei erakustea museo honek kalitate handia duela, batez ere, arte garaikideari dagokionez. Bilboko Arte Ederren Museoan dauden artista horiek ditugu hemen Durangon. Horretaz jabetu behar dugu. Geurea da, Durangokoa, Durangaldekoa. Gainera, doan da ikustea, horietaz disfrutatzea. Bestetik, jendea erakartzea. Museoak gordeta duen ondarea ateratzea ere bada helburua.

> *"Ez dira leku itxiak, finkoak. Aldatu daitezke. Museoa bizi egin behar da"*

**Ezezagunak ditugu museoak? Ohituretan eragiteko, zer egin beharko luke museoak?**
Baliteke, batez ere museo txikiak. Gauza desberdinak proposatu behar dira. Orain arte, bisitari kopuru bat, mota bat, erakarri du museoak. Horiek baztertu gabe, beste bisitari mota batzuk erakartzeko ekintzak ere antolatu ditzake museoak. Umeekin lan egitea da aukera bat. Bide hori urratzen hasi gara ikastetxeekin batera: Lehen Hezkuntzako umeekin hasi gara, baina zabaltzea da asmoa. Museora etorri dira eta tailerrak egin dituzte. Gero, gurasoekin ere etorri izan dira.

**Umeekin lan egin behar da?**
Bai. Oso garrantzitsua da umeekin lan egitea, museoa zerbait dinamiko lez ikusi dezaten. Eurak dira etorkizuna.

**Martxoaren 31ren harira, Pablo Picassoren obra batzuk ekarri gura dituzue Durangora. Nola doa erakusketaren prestaketa?**
Nahiko aurreratuta dago erakusketa, baina Picassoren familiagaz izan dugu arazorik gehien. Asko exijitzen dute. Hala ere, Picassok egindako bi grabatu —bakoitzak bederatzi bineta ditu— ekarriko ditugu: lehenengo 14 binetak *Gernika* egin aurretikoak dira, beste laurak ostekoak. Estilo aldetik aldaketa handia nabaritzen da. Picassoren jatorrizko grabatuak dira eta oso pozik gaude. Orain arte ez da halako mailako erakusketarik egin.

> *"Picassoren jatorrizko grabatuak dira, eta oso pozik gaude"*

**Zer erakusten dute grabatuek?**
Lehenengo binetek Francori egindako kritika erakusten dute. Erdi-munstro bat lez irudikatzen du, parodia eginez. Altxamenduari eta Francoren sistemari kritika egiten diete. *Gernika* osteko irudietan ez da Franco ageri. Kaleko jendea eta gerraren sufrimendua ikusten dira, batez ere. Amak agertzen dira guztietan, umeekin, negarrez... suteak, odola... Picassoren ideia zen binetak moztu eta postal lez saltzea, baina, azkenean, osorik saldu zituen. Dirua Errepublikarentzat izan zen.

**Beste lan batzuekin osatuko duzue erakusketa?**
Bai. *Gernika*ren bozeto batzuen hiru faksimil —jatorrizko margolanaren kopia— ere egongo dira, Picasso familiak baieztatutakoak, eta Josep Renauren grabatu bat ere bai —berak eskatu zion Picassori *Gernika* egitea—. Museoko aleluia bat ere erakutsiko dugu; gauza konplikatu bat era errazean azaltzeko erabiltzen ziren aleluiak. Irudiak erabiltzen zituzten. Komikiaren hasiera dira, nolabait. Picasso ere aleluiatan oinarritu zen bere lanak egiteko. Esan behar dut erakusketa oso hezitzailea izango dela. Gaiaz asko jakin ez arren, erakusketatik dena ulertuta aterako dira bisitariak. Gure helburua da, ikusteaz gain, nola egin ziren, zein prozesu jarraitu zen... ulertzea.

**Galdu ezineko aukera da?**
Picasso egongo da Durangon. Aukera izugarria da, inoiz izan ez dena, eta duen garrantziaz jabetu behar dugu. Baliteke ez izatea bere margolan ezagunenak, baina Picasso da. Gainera, *Gernika*gaz oso erlazionatutako obrak dira erakutsiko direnak, Durangogaz ere erlazio handia dutenak. Autore batzuen arabera, Picassok egunkarian ikusitako argazkiak —gero *Gernika* margolanean islatu zituenak— ez ziren Gernikako irudiak, Durangokoak baino. Erakusketaz gain, bisita gidatuak eta grabatu tailerra izango dira, besteak beste.

**Horrelako beste aukerarik egongo da?**
Agian, bai. Txillidaren erakusketa bat ere egin gura dugu, museoak baditu-eta haren grabatu batzuk. Atera egin gura ditugu.

Kultura

**Imanol eta Ander Garaizabal Pildain** | Logela Multimedia |

# “Aurretik lan handia egin beharra dago emanaldi egunekoa sinplifikatzeko”

Martxoaren 19an, Bilboko Loraldia jaialdian aurkeztuko du Logela Multimedia Elorrioko taldeak ‘Drag.E’ izeneko ikuskizun berria. Ander Garaizabalen ahotik jaso du ANBOTOk lan horren berri




**> IKUSKIZUNA** Itsaso Esteban

**‘Drag-E’ sortzeko, inoizko lantalde handiena osatu duzue.**
Bai, lehen ere beste konpainia batzuekin elkarlanean jardun izan gara, baina oraingoan teatroaren arloa gehiago lantzea gura genuen, eta horregatik joan gatzaizkio Dejabu Panpin Laborategiari laguntza eske. Asko lagundu digute gidoiari eta dramaturgiari dagokienez. Oso babestuta sentitu gara, eta oso gustora jardun gara inoiz sortu dugun obrarik konplexuena den hau sortzen.

**Ikuskizuneko ideia nagusia, bideoak eta musika sortu dituzue Logelako kideek.**
Bai, ikuskizuneko musikak eta bideo animazioak landu ditugu Imanolek, Karlosek, Jonek eta laurok. Proiektura batu den jende guztia koordinatzeaz eta zuzendaritza orokorraz ere Logelakook arduratu gara.

**Noiz hasi zineten ikuskizuneko ideiari forma ematen?**
Zaila egiten zaigu ideia bat noiz sortu den esatea. Baina badira bi urte ideari bueltak ematen gabiltzala. Azken urte honetan, buru-belarri ibili gara ideia hori lantzen.

**‘Wall-E’ filmean inspiratutakoa da ikuskizuneko ideia?**
Pelikula horren hasierako pasartea abiapuntu hartuta, bestelako gidoi bat eta estetika bat sortu ditugu. *Wall-E* bezala, *Drag-E* ere 2800. urtean kokaturiko istorioa da, eta filmean bezala, ez dago naturarik munduan. Egoera horri, dramatik barik, umoretik eta zientzia fikziotik begiratu gura izan diogu gure ikuskizunean.

**Animaziozko irudiak, aktorea, robota... elementu asko ikusiko ditu publikoak oholtzan.**
Bai, multimedia ikuskizuna da, diziplina desberdinak planteatzen dituena. Batetik, egitura mugikor nahiko handi batean egongo da zenbait forma hartzen dituen pantaila nagusia, eta irudiak proiektatuko dira han. Antzerkia lehenengo mailan egongo da, Sara pertsonaiaren eskutik, eta musikagaz, dantza koreografiekin eta robotekin interakzioan jardungo da. Elementu horiek guztiak orekatzea izan da erronka. Nahiko istorio konplexua da, eta gure helburu nagusietako bat umeek ulertuko dutela bermatzea izan da.

**Umeentzat ezezik helduentzat ere interesgarriak izan daitezkeen osagaiak ere badauzka ikuskizunak.**
Bost urtetik gorako umeek ulertzeko moduko ikuskizuna sortu gura izan dugu, baina, era berean, ez da umeentzat bakarrik. Publiko familiarrari zuzenduriko lana da, eta umeentzako ikuskizunak programatzen diren ordutegietan emateko pentsatu dugu. Batez ere arte eszenikoekiko kuriositatea duten helduentzat interesgarria izan daiteke. Gure beste ikuskizun batzuekin gertatu zaigu, gurasoek “ze ondo pasatu dugun denok!” esatea, eta horrek badu balio bat.

**Teknikoki zailtasun handiko lana ematen du.**
Teknikoki erronka handia da zuzeneko emanaldi batean hainbeste elementu uztartzea, bai. Aurretik lan handia egin beharra dago emanaldi eguneko jarduna sinplifikatzeko. Edozelan ere, guretzat erronkarik handiena istorio on bat sortzea eta elementu guztiak ondo uztartzea izaten da.

## Ikuskizuna “helduta dagoenean” eskaini gura dute eskualdean

Elorrioko Arriolako hitzordua ipinita dago: urriaren 22an arituko dira han

Taldearen 15 urteko ibilbidean Logela Multimediako sortzaile elorriarrek publiko familiarrarentzat sortu duten hirugarren ikuskizuna da *Drag-E*. Domekan, Bilboko Loraldia kultur programazioaren barruan estreinatuko dute lana. Azkuna zentroko auditorioan izango da emanaldia, 12:30ean. “Lana ezagutzera emateko aukera” moduan ikusten du Ander Garaizabal taldekideak estreinaldia Loraldia jaialdian egitea.

**Eskualdera, udazkenean**
Garaizabalek azaldu duenez, aurkezpen biraren norabidea aldatu du, oraingoan, Logela Multimediak. Aurreko lanak Durangaldean estreinatu ondoren eskaini izan dituzte Euskal Herrian zehar, eta *Drag-E* lan berri honegaz aldrebes egingo dute: estreinaldia Bilbon egin eta gero, Euskal Herrian zehar ibiliko dira lehenengo, eta urritik aurrera eskaini gura dute *Drag-E* Durangaldean. Elorrioko Arriolan ibili dira antzezlana sortzeko entseguak egiten, Logelakoen herriko antzokian, eta bertan eskainiko dute emanaldia, urriaren 22an. “Guretzat publiko oso inportantea da Durangaldekoa, eta oraingoan hainbat emanaldi egin ostean, lana heldua dagoenean gura dugu hemen eskaini”, diote.

Etziko estreinaldira begira, Elorrioko ikasle eta irakasle talde baten aurrean eskaini zuten ikuskizun berria, proba modura. Pozik daude Logelakoak, ikusi zuten ume zein helduei gustatu zitzaielako naturarekiko begirunea trasmititu gura duen ikuskizun berria.



Proba modura, Elorrioko ikasle eta irakasle talde baten aurrean eskaini zuten ikuskizun berria.


Hirugarren aldia da Durangaldeko txistulari eguna Iurretan ospatzen dutena. Irudian, 2003koa.

# Iurretan ospatuko dute, domekan, Durangaldeko txistularien eguna

## 65 partaidetik gora elkartuko dira Durangaldeko 62. txistulari egunean

**> MUSIKA** Itsaso Esteban

Durangaldeko 62. Txistulari eguna ospatuko dute, domekan, Iurretan. Jaizale taldeko Durangaldeko txistulariek, Iurretako abesbatzak, Durangoko metalen taldeak eta Iurretako dantzariek parte hartuko dute ospakizun horren harira egingo dituzten ekitaldietan. Musikariak, dantzariak eta abeslariak batuta, 65 partaidetik gora batuko dira ospakizunetan.

Domekan, 12:30ean, Iurretako elizan egingo dute Durangaldeko 62. Txistulari eguneko ekitaldi nagusia. Hamar pieza eskainiko dituzte txistulariek eta Iurretako abesbatzak, elkarregaz. Eleder Iturrietaren zuzendaritzapean jardungo dira txistulariak, eta Antton Mari Aldekoa-Otalora arduratuko da abesbatza zuzentzeaz.

> Domekan, 12:30ean, Iurretako elizan egingo dute 62. txistulari eguneko ekitaldi nagusia

Kontzertu horren ostean, *Erregelak* eskainiko dituzte Iurretako dantzariek, plazan.

Durangaldeko txistulari egunaren oihartzuna goizean goizetik entzungo da, martxoaren 19an, Iurretan. 10:00etan, Montoiko zubitik elizaraino burutuko duten kalejiran, *Ijurretan badago*, *Gora* eta *Elizondo* piezak joko dituzte.

Durangaldeko herri guztietako txistulariak elkartuko dira urteroko zita horretan, eta baita Gasteiztik, Bilbotik edo Ondarroatik etorritakoak ere.

1956. urtean, Abadiñon ospatu zuten Durangaldeko txistulari eguna lehenengoz, eta ordutik, urtero eskualdeko herri batean elkartu dira egun hori lagun artean ospatzeko. Domeka honetakoa ez da Durangaldeko txistulari eguna Iurretan ospatzen duten lehenengo aldia. Beste bi aldiz ere elkartu dira txistulari egunez herri horretan.

# 'Hordago txikira' ETBn emango dute, domekan

## Bittor Garaigordobil abadiñarra da protagonista

**> ZINEMA** I. E.

Gasteizen estreinatu zuten, herenegun, Bittor Garaigordobil misiolari abadiñarrak eta bere kideek 1948. urtean Ekuadorren abiatu zuten lanari buruzko *Hordago txikira* dokumentala. Domeka honetan, 11:00etan, ETB2-n emango dute.

Lorea Pérez de Albenizek eta Goiuri Aldekoa-Otalorak burutu dute *Hordago txikira,* Elizbarrutietako Misioak taldeko kideen enkarguz. Garaigordobil abadiñarra gidari zutela, 1948an zortzi misiolarik Ekuadorrera egin zuten bidaia, eta han izandako esperientziak dira filmaren ardatza. Dokumentalak kontatzen duenez, Los Rios eskualdean ezagutu zuten kultura indigenaren eta bertako biztanleen duintasunaren alde lan egin zuten misiolariek. Garaigordobilen "lan egiteko moduak erabateko aldaketa eragin zuen elizbarrutiaren jardunean", dokumentalaren sinopsian azaltzen denez. Askapenaren Teologiaren defendatzailea zen Garaigordobil, eta gaur egun ere eredu horren aldekoa da.

> Garaigordobil gidari zutela 1948an zortzi misiolarik Ekuadorrera egin zuten bidaiaren kontakizuna

Urkiolako Santutegiaren alboan Bizkaiko elizbarrutiak duen etxean bizi da azken urteotan Bittor Garaigordobil. Aurten 102 urte beteko ditu.


Pérez de Albenizek zuzendu duen dokumentalaren fotograma bat.

## GEURE DURANGALDEA

**JON IRAZABAL AGIRRE**
Geredigako kidea



### Amatzako gerrako umeak

Gerraren 80. urteurrena delaeta hemen gabiltza ia egunero, batetik bestera. Durangoko bonbardaketa, Saibigaineko gudaldia, Otxandioren "liberazioa", etab. Baina gudak ere baditu bere istorio txikiak, eta horrelako bat ekarri gura dut gaur lerrootara. 1936ko irailean, Molak Gipuzkoa menperatu ondoren, Errepublikako soldadu eta milizianoak Durangerriko lurretara abitu ziren. Eurekin beraien "tresnak" eta hauen artean Donostiako kuarteletako bolborategiko "trepetxuak" ere heldu ziren gure eskualdera. Bonba, dinamita eta antzeko jostailuak ezin dira edonon pilatu, eta agintariek egoki ikusi zuten herriko multzo nagusitik aparte kokatutako Iurretako eliza erabiltzea horretarako. Baina parrokia horretarako erabiliz gero, elizkizunak beste toki batean burutu beharko ziren, eta Amatzako San Martin baselizan egitea erabaki zuten.

Erabaki honen ondorioz, lau hilabetez gutxi gorabehera, 36ko azarotik 37ko otsailera, mezak, beste elizkizunak eta bataioak Amatzan burutu ziren. Epe horretan 25 iurretarrek hartu zuten bataio ura ermita txiki hartan. Lehena, 36ko azaroaren 5ean, Tomas Zugazartaza Begoñak, eta azkena, 37ko otsailean, Amatza bertako Mª Luisa Zamalloa Onaindiak. Guztira, 25 izan ziren bataiatuak, 14 mutiko eta 11 neskato. Guztiak gerra hasi orduko "enkargatutakoak".

Momentu honetan ez dakit euretatik zenbat, baina badakit batzuk bizi direla. 80 urte igaro dira San Martinen begirapean euren buruan ur hotza sentitu zutenetik. Pentsatzen nabil, aurten, uztailean, bizi direnak bildu eta oroitu genitzakeela Amatzako jaietan, gerran heriotzak ezezik jaiotzak ere gertatzen direla gogoratzeko.






# OSASUN GIDA

## FISIOTERAPIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

**Trañabarren 13, 4. blokea, behea eskuma**
**48220 MATIENA-ABADIÑO**
**Tel.: 944 657 132 - 686 906 374**

PSE: 119/13

**PABLO ZUBIZARRETA**
FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA

**Muruetatorre, 2D - 48200 DURANGO**
**pzubizarreta@gmail.com**

**Tel.: 946 550 049**
**Mug.: 695 784 963**

PSE: 57/16

## PEDAGOGIA

UGATZ

**UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA**
*Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea, fisioterapia, logopedia*
**Juan Olazaran, 1 behea**
**48200 DURANGO**
ugatz@hotmail.es
**Tel.: 944 668 370 - 615 782 090**

PSE: 63/63

## PODOLOGIA

**PODOLOGIA KLINIKA**

**GOIATZ MURUA**
PODOLOGOA
**AINHOA ELORZA**
PODOLOGOA
*Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak*
**Monagotorre, 4 - behea**
**48200 DURANGO**
**Tel.: 946 203 630**

PSE: 148/13

## ESTETIKA

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA
www.medicinaesteticadurango.com

**Laser berria:**
*Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra*

*Obesitatea-zelulitisa,*
*Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...*
*Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...*

**Txatxiena, 6**
**48200 DURANGO**
**Tel.: 946 810 387**

PSE: 16/09

## OPTIKA

keinu
optometria zentroa

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometriazentroa.com

PSE: 162/13

## ODONTOLOGIA

clínicadentalhortzklinika

**B. UNAMUNZAGA**
**E. ETXEBARRIA**
*ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALIZATUA*
**Muruetatorre, 2C - behea**
**48200 DURANGO**
*uecdental@gmail.com*
**Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454**

PSE: 145/13



**J.L. URRETA ZABALO**

*MEDIKU ESTOMATOLOGOA*
*IMQ, PADI (umeen hortz programa)*
*Ortodontzia*

**Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.**
**48200 DURANGO**
**Tel.: 946 812 200**

PSE: 112/13

## PSIKOLOGIA

**JON ARRUABARRENA**
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA
• Antsietatea, estresa, fobiak
• Depresioa • Eskola arazoak
UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK
**Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO**
**jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz**
**Tel.: 946 033 246 - 629 245 728**

PSE: 62/11

# ‘Eskerri’ artista bilbotarraren azken urteetako eskultura lana

Artistak eskainitako bisita gidatuagaz inauguratu zuten, martxoaren 10ean, ‘Marmoka’ erakusketa; apirilaren 2ra arte egongo da Durangon

**> ESKULTURA** Itsaso Esteban

Alberto Gracia *Eskerri* artistaren (Bilbo, 1963) *Marmoka* erakusketa dago, joan zen barikutik, Durangoko Arte eta Historia Museoan ikusgai. Martxoaren 10ean, artistak eskainitako bisita gidatuagaz inauguratu zuten erakusketa, eta apirilaren 2ra arte egongo da Durangon.

Medusaren mito grekoaren inguruko eskulturen erakusketa monografikoa da *Marmoka*, eta jainkosa horren irudian oinarrituriko hainbat obrak osatzen dute. Hiru urtez, Bilbon eta Gasteizen dauzkan tailerretan landu ditu erakusketa honetako eskulturak *Eskerri*k, eta horiek bilduta osatu duen erakusketa da Durangon joan zen barikuan zabaldu zuena.

> Medusaren mitoaren inguruko eskulturak dira Durango Museoko erakusketan daudenak



Azken hiru urteetan eskulturaren arloan egin duen lana bildu du artista bilbotarrak ‘Marmoka’ erakusketan.

Burdinagaz eta terrakotagaz egindakoak dira erakusketako eskulturak. Izan ere, azaldu duenez, horrelako materialekin lan egitea gustatzen zaio artista bilbotarrari. “Obra irmoak ditut gustuko, eta denboraren joana duintasunez jasaten duten materialak. Brontzeak, adibidez, edertasuna irabazten du urteen poderioz, eta are ederragoa da aire zabalean egotearen ondorioz”, dio artistak. Eskulturgile gisa, bere helburua “ahalik eta eskala eta material potenteenekin lan egitea” dela dio *Eskerri*k.

Kontatu duenez, eskulturan zentratuago dago azken aldian, baina margotzea ere gustatzen zaio. “Tailerrean beti dauzkat askotariko 20-30 bozeto”, azaldu du. “Baina, noski, eskultore baten moduan margotzen dut, eta denetariko materialak gehitzen dizkiet margolanei ere; gustatu zaidan burdina edo egur zati bat izan, hiltze bat izan...”.

Artista plastikotzat dauka *Eskerri*k bere burua. Arte plastikoen barruko diziplina guztiekiko dauka interesa. Adibide moduan dio, orain, adibidez, beira lantzen ikasten ari dela. Ildo horretatik, azaldu du, joan zen mendeko abangoardietatik gaur egungo artistenganaino, askotariko diziplinetan esperimentatu duten artistak dituela gogokoen; Picasso, Barceló eta Bacon aipatu ditu, besteak beste.

> “Obra irmoak ditut gustuko, eta denboraren joana duintasunez jasaten duten materialak”

2008. urtean ere erakutsi zuen *Eskerri*k bere lana Durangoko Museoan. Margolanak eta eskulturak bildu zituen erakusketa hartan. Oraingoan, ibilbide luzeko artistak eskulturaren arloan buruturiko azken sorkuntzak dira Durangoko Museoan ikusgai daudenak.

Martitzenetik barikura, 11:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara egongo da erakusketa zabalik. Zapatuetan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; eta domeka eta jai egunetan, 11:00etatik 14:00etara.

# Elorrioko emakumeak dira kultur etxeko erakusketen protagonistak

Elorrioko 10 artistaren lana eta herriko emakumeei buruzko erretratuak, ikusgai

**> ERAKUSKETA** I. E.

Patxi Granadoren *Ezberdinak* argazki erakusketa eta herriko hamar emakume artistaren erakusketa kolektiboa daude, apirilaren 21era arte, Elorrioko Iturri kultur etxean ikusgai. Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira udalak antolatu duen programazioaren barrukoak dira erakusketa biak.

Emakumezkoen aniztasuna islatzen dute Patxi Granadoren *Ezberdinak* erakusketako erretratuek. Adin, sexu, genero, jatorri, erlijio, ideologia... anitzeko Elorrioko emakumeen zuri-beltzeko 34 erretratu daude erakusketan. Konposizio berbera baliatu du Granadok argazki guztiak egiteko: emakumeen plano hurbilak, atzealde beltzean. Protagonista bakoitzaren irudiak eta begiradak bereizten dute argazki bakoitza, eta agertzen dute aniztasuna.

Erretratuokin batera, Arantxa Arruabarrena, Cinta Altes, Debora Crespo, Maite Salsamendi, Marta Ortiz de Zarate, Nieves Medela, Rita Ugarriza, Maite Zubia, Kristina Balenziaga eta Mari Carmen Kortabarriaren artelanak daude ikusgai Iturri kultur etxean.



Herriko emakumeen aniztasuna islatzen duten 34 erretratuk osatzen dute ‘Ezberdinak’ erakusketa.



2015ean Leioako Umore Azokan saritu zuten ‘Andante’.

# ‘Andante’ obra hautatu dute Max sarietarako

Kaleko antzezlanen kategoriarako izendatu dute

**> ANTZERKIA** I. E.

Markeliñe Zornotzako taldea dago Max antzerki sarien XX. ediziorako epaimahaiak hautatu dituen antzerki taldeen zerrendan. Kaleko antzezlan onenaren sarirako izendatu dituzten zortzi hautagaietako bat izango da Markeliñe taldearen *Andante* antzezlana. Estatuko antzerki taldeen 311 ikuskizun aurkeztu dira Max sarietan lehiatzeko, eta horietatik 112 aukeratu ditu epaimahaiak.

Ekainaren 5ean, Valentziako Palau de les Arts Reina Sofía aretoan egingo dute 2017ko Max sarien banaketa ekitaldia.

2014ko irailean Tárregako (Kataluniako) antzerki jaialdian aurkeztu zuen Markeliñek *Andante* obra, eta 2015ean Euskadiko kaleko ikuskizunik onenaren saria jaso zuen Leioako Umore Azokan. Berbarik barik, era poetikoan eta umoretik, gerrei eta memoriari buruz dihardu antzezlanak.

Kirola

**Alexander Unzueta Ormaetxea** | Duatleta eta txirrindulari ohia | Berriz, 1991




# "Txirrindularitzan egin barik utzi nuen gauza bakarra besoak altxatzea izan zen"

Joan den domekan Nafarruriko mendi duatloia irabaztea lortu zuen Alex Unzueta berriztarrak

> KIROLA Maialen Zuazubiskar

**Txirrindularitzan hamar urte eman ostean, Alex Unzuetak bizikleta utzi berri du, eta duatloiak egiten hasi da. Berriztarrak bere lehenengo garaipena lortu du asteburuan, Nafarrurin (Errioxa) .**

**Duatloien munduan debuta egin berri duzu, eta lehen garaipena iritsi da. Nolakoa izan da?**
Garaipena lortzea oso polita izan da. Hala ere, are politagoa izan da Ainhoa neska-lagunagaz eta bere aitagaz mendi duatloian parte hartu ahal izatea. Ilusio berezia egiten zidan beraiekin proba batean parte hartzeak.

**Esan liteke txirrindularitzak zor zizun garaipena eman dizula duatloiak?**
Bai, baliteke. Duela astebete, txirrindularitzako lagunekin garaipenen inguruan hitz egiten egon ginen. Nik aitortu nien txirrindularitzan egin barik utzi nuen gauza bakarra besoak altxatzea zela, eta helmugan garaile sartzeko momentuan zer sentitzen zen jakin gura nuela. Eta begira, elkarrizketa hori izan eta bi egunera Nafarrurin irabaztea lortu nuen. Helmugaratzeko orduan, beraiekin gogoratu nintzela aitortu behar dut.

**Zerk bultzatu zaitu duatloien munduan hastera?**
Duatloiak beti izan ditut gustuko. Nafarrurikoa aurten lehiatu dudan bigarrena den arren, aurrez beste hirutan ere parte hartu izan dut. Hala ere, aurten txirrindularitza utzita, kirol honetan gehiago zentratu naiz, Gorka Bizkarra 'Tchmil' lagunari esker. Bera izan da gehien lagundu didana, egun askotan bere entrenamenduak aldatu ditu niri laguntzeko. Beraz, oso eskertuta nago.

> *"Bizimodu ezberdin bat bizitzeko aukera aurkitu dut duatloiei esker"*

**Txirrindularitza utzi eta duatloiak lehiatzera pasatu berri zara. Zer aurkitu duzu modalitate honetan?**
Batez ere, bizimodu ezberdin bat bizitzeko aukera aurkitu dut. Azken urteetan, zenbait taldegaz konpromisoak izan ditut, eta beraz, beraien esanetara egon behar izan dut. Orain, berriz, neuk erabakitzen dut noiz gura dudan lehiatu edo noiz gura dudan lagunekin edo neska-lagunagaz asteburu bat disfrutatu.

**Txirrindularitzatik duatloietara; duatloietatik triatloietara pasatzeko asmorik baduzu?**
Egia esan, bai. Duela gutxira arte, burutik ere ez zitzaidan pasatzen triatloiak egitea. Baina Gorkak beti esan dit triatloiak askoz politagoak direla, eta probatzeko. Orduan, azaroan igerilekura joatea erabaki nuen, eta aitortu behar dut igeri egitea gustatzen hasi zaidala. Nire helburua, Ainhoagaz batera, bere herriko, Zumaiko triatloian parte hartzea da.

**Azken urteetan maila izugarria emanda eta Espainiako lasterketetan onenen artean ibili ondoren txirrindularitza uztera behartuta egon zarela esan daiteke?**
Niri gehien gustatzen zaidana bizikletan ibiltzea da, disfrutatu egiten dut-eta bizikletan nabilenean. Baina egia da behartuta sentitu naizela bizikleta uztera, hemen ez baitaukagu profesionaletara pasatzeko ia aukerarik. Gainera, urte hauetan guztietan ikusi ahal izan dut zuzendariek eta txirrindulariek emaitzei bakarrik ematen dietela garrantzia, eta txirrindulari langileek ez dutela aukerarik profesionaletara pasatzeko. Bestalde, 25 urtegaz kirol honetan zahartzat jotzen zaituzte.

> *"Maite dudan kirola utzi behar izateak izugarri izorratu nau, pena eman dit"*

**Tropelak txirrindulari lehiakor bat galdu du.**
Beti esan didate ihesaldietan larregitan egon izan naizela, indarrak gehiago gorde beharko nituzkeela. Baina niri beti gustatu izan zait lasterketetan burua erakustea eta dudan dena ematea, eta oso pozik nago egindakoagaz, horrela izugarri disfrutatu baitut.

**Txirrindularitza uztea erabaki zaila izan da?**
Zaila ez, urte hasieratik nekien-eta itxi beharko nuela. Hala ere, egia da maite dudan kirola utzi behar izateak izugarri izorratu nauela eta gaur egun oraindik pena handia ematen didala, baina hartu beharreko erabakia zen.

**Hamar urteko ibilbideari amaiera eman ondoren, baduzu damu edo penarik?**
Pena bakarra daukat, gurasoek besoak altxatuta helmugaratzen ez ikustea. Karrera askotara lagundu didate eta beraiei garaipen bat eskaintzea gura nuen, baina ez dut lortu. Gainera, Ampo taldeagaz liderraren elastikoa jantzi nuen egunean, beraiek ezin izan zuten ikusi.

**Zer eman dizu hamar urte hauetan txirrindularitzak?**
Kirol honek eman didan gauzarik garrantzitsuena berari esker egin ditudan lagunak izan dira. Esaterako, eskualdeko Gorka eta Mikel Bizkarra, Illart Zuazubiskar, Markel De La Fuente eta Eneko Lejarreta. Horrez gain, heldutasun puntu bat ere eman dit txirrindularitzak.

**Txirrindularitza utzi duzun arren, zuzendari lanetan eta prestatzaile fisiko moduan jarduten duzu egun.**
Iaz denboraldia bukatu ostean zuzendari titulua atera, eta egun Ampo taldean ari naiz praktikak egiten. Txirrindulari moduan nire azken denboraldia bertan egin nuen, eta beraiekin praktika hauek egitea izugarria da, oso eskertuta nago. Euren tratua izugarria da, seme bat lez tratatu naute beti.

# Asteburuan xake ligak amaituko dituzte Durangaldeko taldeek

Abadiñok mailari eutsi dio eta Euskadiko onenekin jarraituko du



Abadiño xake taldeak Euskadiko Ohorezko Mailan jarraituko du, estatuko talderik indartsuenetako askogaz.

> XAKEA Joseba Derteano

Durangaldeko lau xake taldeek Euskadiko eta Bizkaiko ligak amaituko dituzte asteburu honetan. Batzuek helburuak bete dituzte edo mailaz igoko dira. Besteek aukera berri baten zain geratu beharko dute.

Abadiñoko xake taldeak etxeko lanak eginda ditu Euskadiko Ohorezko Mailan. Euskadiko mailan jokatzen eta eskualdeko erreferente izaten jarraituko du hurrengo denboraldian. Maila bat beherago, Bizkaiko Gorenean dabilen Abadiño B taldeak ere estuasunik barik eutsi dio kategoriari, eta goikoekin borrokan aritu da azken jardunaldietan. "Ezin dugu gehiago eskatu. Helburuak beteta oso pozik gaude", adierazi du iaz 25 urte bete zituen klubeko Alain Prieto xakelariak.

Abadiñoko talde nagusi biak esperientzia handiko xakelariek osatzen dituzte. Urte asko daramatzate kluba aurrera eramaten. Baina harrobia indartsu dator, eta laster beteranoei apurka-apurka erreleboa ematen hasteko moduan egongo direla uste du Prietok.

## Zornotzaren plana

Xake partida bat bailitzan, Zornotzako arduradunek modu estrategikoan mugitu dituzte aurten klubeko 'piezak'. Bizkaiko Gorenean talde bi izatea zen helburua, eta xakelariak helburu horren arabera banatu dituzte talde bien artean. Apustua borobil irteteko zorian dago. Deskalabrurik ezean, talde nagusiak mailari eutsiko dio eta bigarrena igo egingo da. Beraz, denboraldi hasieran planifikatu moduan, Zornotzak talde bi izango ditu Bizkaiko Gorenean.

## Zaldi Baltza, besteen zain

Elorrioko Zaldi Baltzak gurago luke Zornotzaren planak akatsen bat balu. Izan ere, Lehen Erregionalean, talde bi igotzen diren mailan, Zornotza bigarren dago eta Zaldi Baltza hirugarren. Puntu biko aldea dago bien artean azken jardunaldiaren faltan. Gaitz dute igoera. Denboraldiko hasiera "kaskarrak" kondenatu ditu, Aitor Arabiourrutia xakelariaren ustez. Orain, martxa hartu eta sasoi betean daudenean, liga amaitu egin zaie, eta miraririk ezean ezingo dute iaz galdutako maila berreskuratu.

Abadiñon lez, xakelari gazteen garapenak etorkizunari baikortasunez begiratzeko aukera eskaintzen die. Manex Regillaga da horren adibide garbia. Kimu mailako (11-12 urte) xakelariak nagusiekin birritan jokatu du aurten eta ez du galdu; garaipen bat eta berdinketa bat.

## Larrasoloeta taldea

Durangoko Larrasoloeta xake taldea Bigarren Erregionalean dabil eta zortzigarren postuan dagoela Sestaon amaituko du denboraldia asteburu honetan. Klubeko B taldea bigarren dago Hirugarren Mailan.

## Manex Regillaga Bizkaiko txapeldun kimu mailan

Jokatutako partida denak irabazi zituen



Manex Regillaga, ezkerrean, Bizkaiko txapelketako partida batean.

Manex Regillaga elorriar gazteak kimu mailako Bizkaiko txapelketa irabazi du. Joan zen asteburuan Sestaon jokatutako finalean sailkapen faseko zein finaleko partida guztiak irabazi zituen Elorrioko Zaldi Baltza taldeagaz jokatzen duen xakelariak. Gaur egun Durangaldean dagoen promesarik handienetakoa da, eta iaz Espainiako txapelketan ere parte hartu zuen.

Bizkaiko txapelketan eta nor bere mailan, onenen artean aritu ziren Jesuitak ikastetxeko Unai Calvo, Nevers ikastetxeko Unai Hernandez eta Iban Juarez, eta Abadiñoko Xake Taldeko Cristian Cretu eta Hugo Santana ere.

## ADITUAREN TXOKOA



KEPA ARROITAJAUREGI
Pilota teknikaria

### Hilabete garrantzitsua

Udaberriranzko garaia beti izan ohi da garrantzitsua profesional mailako pilotarientzat, baita amateur mailakoentzat ere.

Maila gorenean Binakako txapelketaren amaiera eta manomanista nagusiaren hasiera jokatzen da, eta bertan, azken aspaldian, zorionez bizkaitarren presentzia nabarmendu egin dela esan daiteke. Orain pare bat urte Berasaluze IIa-ren ibilia jarraitzen genbiltzan, iaz Urrutikoetxearena eta aurten bizkaitar bi jarraitu beharrean gagoz finalerdietako ligatxoan; Larunbe eta Elezkano II.

Bigarren jardunaldia jokatuko dute asteburuan eta atzelariarentzat aurrelariarentzat baino aukera gehiago aurreikusten badira ere, biek finalerako borrokan jarraitzen dute eta aukerak benetakoak dira. Maila oso ona ematen ari dira biak titular gisa, beraientzat lehen urtea denean gainera. Berto-bertokoak ez dira, baina Durangaldean entrenatzen hainbat ordu egin dituzte eta 'geuretzat' ere hartu genitzake. Gazteak eta oraindik proiekzio handikoak izaki, urte askoan iraun dezala bertan bizkaitarren presentziak.

Eta amateur mailan GRAVNI-a martxan da dagoeneko. Federazioen arteko lehiaketa non Bizkaiko selekzioak itxura ona emateko helburua duen. Eta hor bai, Durangaldeko bat behintzat nabarmendu behar, Aspuru abadiñarra. Trinketeko banakako nagusia berritu nahi du. Bere ibilibidea oker hasi du larunbatean Errioxa-ko Garatea-ren kontra galduz.







NISSAN
Innovation that excites

3 URTEKO MANTENTZEA, BERMEA ETA LAGUNTZA




NISSAN X-TRAIL
23.600 €* TIK AURRERA

7 ESERLEKUREKIN ETA SABAI PANORAMIKOAREKIN

YOU + NISSAN
GURE KONPROMISOA ZURE ESPERIENTZIA.
- Kortesiazko ibilgailua doan
- Zerbitzuko prezioak berdinduta
- Nissan Assistance bizi osorako
- Ibilgailuen azterketa doan

Ezagutu zehaztasunez Bezeroen Promesa Cliente programa hemen: nuncaconducirassolo.es edo kontzesionarioen gure sare ofizialean.

GAURSA
Arriandi Auzoa, 12 - 48215 - Iurreta - Bizkaia - Tel. 946 205 000

Kontsumo mistoa: 6.2 l/100 km. $CO_2$ isurpenak: 145 g/km.
*PSP gomendatua penintsulan eta Balearretan, barne dauzka FAP, garraioa, Nissan Assistance, sustapenaren deskontua, BEZ eta ZGZB, Espainiar merkaturako, nahiz eta azken hori agian ez den aplikagarria zure Autonomia Erkidegoan. 3 urteko mantentze-kontratua (kilometro kopuruaren mugarekin). Sartutako berrikusketak Bermeen Liburuaren eta Mantentze Ziurtagiriaren araberako estandarrak dira. Salbuetsita daude Flotak eta enpresak. Eskaintza balioduna eskuzko Nissan X-Trail Acenta DIG-T 163CV (120 kW) EURO 6 berri bat eskuratzen duten partikular eta autonomoentzat, baldin eta eroslearen izenean dagoen erabilitako ibilgailu bat ematen badute eta Espainian Sukurtsala duen Magic Plan de RCI Banque SAren bidez finantzatzen badute. Gutxieneko egonaldia 24 hilabete, finantzatzeko gutxieneko zenbatekoa 6.000€. Eskaintza ez da bateragarria beste kanpaina batzuekin eta 2017/03/31 arte da balioduna. Informazio gehiago jasotzeko jo zure gertueneko kontzesionariora. Baliteke bistaratutako irudia ez etortzea bat eskainitako ibilgailuarekin.

# "Amaitzea nuen helburu, eta iazko podiuma hobetzea ederra izan da"

Leire Muniain iurretarrak hirugarren tokian amaitu du Ut les Fonts proba



Leire Muniainek Erronka Trailean parte hartuko du ekainean.

**> KORRIKA** Joseba Derteano

Leire Muniainek (Iurreta, 1973) hirugarren tokian amaitu du Ut les Fonts proba gogorra, eta podiumera igo da. Horrela, iazko laugarren postua hobetzea lortu du. 120 kilometro hiru etapatan banatuta. Horixe izan zen Tarragonako (Katalunia) proban parte hartu zutenen erronka. Iaz maila bikaina eskainiagatik ere, aurten "proba amaitzea beste helbururik ez nuen", azaldu du iurretarrak. "Hain proba luzeetan ez da jakiten zer gertatu daitekeen".

Hiru egunetan oso erregularra izan zen, eta podiumeko postuetan mantendu zen. Bigarren etapa egin zitzaion gogorrena. Denetan luzeena zen (70 km), aurreko eguneko esfortzutik errekuperatzea kosta egin zitzaion, eta berak gura baino bero handiagoa egin zuen. "Gainera, ibilbidea apur bat moldatu zuten, harri arteko igoera batzuk gehituz. Egia esanda, etapa horretan iaz baino gehiago sufritu nuen", azaldu du korrikalariak. Hala ere, etapa amaierako balorazioa esperantzagarria zen: 42 minutu kentzen zizkion sailkapeneko hurrengoari. Horrela, azken etapan indarrak neurtzeko modua izan zuen. "Amaituta pozik nengoen arren, buruan beti darabilzu aurreko urtekoa hobetzea, eta alde horretatik ezin dut gehiago eskatu", argitu du.

Iaz legez, Muniain ez zen bakarrik joan proba horretara. Durangotik eta Iurretatik bertaratu zen lagun taldea Jose Aguilerak, Ander Espinek, Alberto Garciak, Jose Virgilio Angulok, Ireder Angulok eta Eneko Barroetak osatu zuten.

### Betidanik korrika

Urtean zehar lasterketa gutxi batzuk lehiatzen ditu Muniainek. Gorputzak eskatzen eta bestelako zereginek ahalbidetzen dioten heinean, han eta hemen parte hartzen ahalegintzen da. Hurrengo hitzordua ekaineko EH Mendi Erronka proba (65 km) izango du, Leitzan.

Maiztasun gutxiagoagaz edo handiagoagaz, korrikalaria izan da umetatik. Txikitan Bidezabal atletismo taldean aritu zen. Ondoren, duatloiak ere probatu zituen Mugarra Triatloi Taldeagaz.

# Pilota eta hamaika kirol gehiagoko udalekuak

**> UDALEKUAK** J.D.

Abadiñoko eta Durangoko pilota eskolek udalekuak antolatu dituzte, ekainaren 26tik uztailaren 21era arte. Urtero legez, pilotagaz gainera, beste hainbat kirol praktikatzeko aukera ere eskainiko diete 8 eta 14 urte arteko neska-mutilei.

Astelehenetik barikura pilotan, atletismoan, mendian, hondartzan, bizikletan… edo beste hainbat kiroletan emango dituzte goizeko orduak (9:30-13:30). Izen-ematea hilabete osorako zein astez asterako egin daiteke, maiatzaren 31 bitartean. Dudak argitzeko, *kiroludalekuak@gmail.com* helbidea bideratu dute.

Udalekuak antolatzeko, Durangoko eta Abadiñoko udalen eta Amankomunazgoaren laguntza jaso dute.



Mendi irteerak dira udalekuetako eskaintza bat.

## AGENDA

**> FUTBOLA**

HIRUGARREN MAILA (gizonak)

**Durangoko Kulturala - Santutxu**
· Zapatuan, 16:45ean, Tabiran.

EUSKAL LIGA (emakumeak)

**Elorrio - Zarautz**
· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

MAILA GORENA (gizonak)

**Abadiño - Gurutzeta**
· Zapatuan, 16:00etan, Astolan.

LEHEN ERREGIONALA (gizonak)

**Zorrontzako - Ugeraga**
